

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Norberto Elizondo Bertiz

*Arantza,
Nafarroa
(1918-2012)*

Aurkibidea

Biografia



Arantzan sortu zen,
Larraburuko bordan. Guraso
biak Arantzakoak zituen.

Zintak

ARN-020

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-09-19
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

ARN-021

- **Proiektua:** Bortzirietako ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Lakar Iraizoz, Maite
- **Data:** 2007-09-19
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Arburua Etxeberria, Patri

Pasarteak

1. Jende pobrea

- **Erref:** ARN-020/001
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:00:05. **Bukatu:** 00:02:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Arantzan Esteban Irigoien apaizak laguntza handia eman zien. Norbertok “jaungoikoa” deitzen zion. Apaizari esker atera omen ziren argitara. Telefonoa ordaindu zuen, eskolak ere moldatu zituen... oso arropa txarrak zituzten, zapatarik ez zuten. 2 ezpartin pare zituzten. Paren bat 22 sosekoa, bestea 18koa. Jende zaharra oinutsik ibiltzen zen. Elizara sartzeko janzen zituzten oinetakoak.

2. Zer arropa erabiltzen zuten

- **Erref:** ARN-020/003
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:03:27. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Arropa txarrak erabiltzen zituzten. Galtza motzetan ibiltzen ziren umeak. Arrebak neskame atera ziren gazterik eta etxe horietako umeek erabiltzen ez zuten arropa pasatzen zizkieten.

3. Gazterik etxetik atera zerbitzera

- **Erref:** ARN-020/004
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:07:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

13 urtetarako kanpora atera zen lanera. Beran izan zen, etxera itzuli, baina dirua behar zutenez berriz joan zen kanpora, Frantziara. Hilabeteen zilarrezko 8 duro irabazten zituen. Baserrian morroi aritu zen. Esnea banatzen ibiltzen ziren. Haziendari bazka eman, untxiak zaindu... han ikasi zuen bizikletan. Beran ere baserrian aritu zen.

4. Don Matias apaiza

- **Erref:** ARN-020/006
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:08:36. **Bukatu:** 00:09:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Oso zakarra omen zen. Gauza on bat egin zuen behin. Saran zaldi bat saldu zuen Norbertoren familiak. Baina ez zuten kobratu. Apaizak eskuratu zien zaldiak balio zuen dirua.

5. Bazkoz kunplitzea

- **Erref:** ARN-020/008
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:10:05. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Txartel bat hartu behar zen lehenbizi apaizarenean. Dotrina galdetzen zuen apaizak. Behin lagun bat joan zen txartel bila eta apaizak zenbat jainko zeuden galdetu: " - Frantsesez, jinkoa, euskeraz jainkoa, gaztelaraz dios eta txartela ematen ez badidazu, Don Matias, adios". Dotrina gaizki esanez gero ez zuen txartelik ematen. Behin komunioa eginda, txartela itzuli beharra zen

6. Baikuntza

- **Erref:** ARN-020/010
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:13:34. **Bukatu:** 00:14:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Gaztaina denboran guarda bat izaten zen herrian, zerriak eskapatuz gero berriz herrira itzuli eta gaztainak jan ez zitzen. Horri deitzen zitzaion baikuntza.

7. Urri bukaeratik aurrera libre zen zerriak ateratzea. Gaztaina motak

- **Erref:** ARN-020/012
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:15:09. **Bukatu:** 00:16:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Urri bukaera – azaro hasieratik aitzina libre zen zerriak askatzea. Gaztainak jaten zituzten. Herritarrak ere gaztainei esker bizi ziren neurri handi batean. Gaztaina motak azaltzen ditu: San Migel gaztaina, gaztaina zuria, Lesakarra eta anbutxa.

8. Igandetean emakumeak ilunabarrerako etxera

- **Erref:** ARN-020/014
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:17:20. **Bukatu:** 00:18:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Igandetean bezperetara joaten ziren. Ilunabarrerako emakumeak etxean behar zuten. Gizonek erronda egiten zuten gauean.

9. San Luiskoak eta Mariaren alabak

- **Erref:** ARN-020/016
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:18:56. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Hijas de Maria zeuden bezala, San Luiskoak ere baziren mutikoendako. Domina bat eramaten zuten. Abesten ez bazuten kastigatzen zituzten. Don Matiasek kastigatzen zituen. Martin Irañetarekin heldu zen lasaitasuna. Errosarioa ematen zuen irratitik.

10. Jende asko bizi zen herrian

- **Erref:** ARN-020/018
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:20:16. **Bukatu:** 00:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Irratiz ematen zituzten herriko berriak. Jende asko bizi zen Arantzán. Lehen 3 meza izaten zen Arantzán, eta denetan izaten zen eliza betea. Orain bakarra izaten da eta ia hutsik egoten da, jubilatuek bakarrik joaten dira.

11. Arantzako bestak

- **Erref:** ARN-020/019
- **Iraupena:** 0:06:32. **Hasi:** 00:21:16. **Bukatu:** 00:27:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Musika Lesakatik ekartzen zuten. Mutil koxkorrek pagatzen zieten musikariei. Besta politak izaten ziren. Boladoak (izozki gisako bat) jaten zituzten. Lehengo

eta oraingo bestak ezberdinak dira. Dantza asko egiten zuten. Musika izaten zen, afaria, eta ondotik ere musika ordu 2ak arte. Pilota partidak izaten ziren, Aranztarrak Lesakarren kontra. Bertsolariak ere izaten ziren eta udaletxetik aritzen ziren kantuan.

12. Frontoi luzea ezagutu zuen Norbertok

- **Erref:** ARN-020/021
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:28:02. **Bukatu:** 00:28:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Zaharragoek "luzian" jokatzeko zuten. Forontoi luzean. Botarria izaten zen etxe baten parean. Kendu zuten gero. "Martinxeneko" etxe parean izaten zen luzia.

13. Beste joko batzuk: "Toki"

- **Erref:** ARN-020/022
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:28:37. **Bukatu:** 00:29:38

Gaia(k):

Laburpena:

Ostatutan jokatzeko zuten joko hau. Kutxa baten barnean barilla bat izaten zen eta 10 fitxekin jokatzeko zen. Fitxa haiek jaurti eta zein gehiago barillara hurbilduko apustua egiten zuten.

14. Trinketea

- **Erref:** ARN-020/023
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:29:38. **Bukatu:** 00:30:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Elizako arkupeetan aritzen ziren zaharrak trinketean. Sare bat jartzen zuten bazterrik-bazter eta pilota handiekin jokatzeko zuten.

15. "Santa Akta" eguna

- **Erref:** ARN-020/025
- **Iraupena:** 0:04:44. **Hasi:** 00:32:30. **Bukatu:** 00:37:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Eguberri bezperan eta urtezaharrean egiten zuten Santa akta eguna. Kantuan ateratzen ziren "Dios te salve..." Limosna hartzen zuten. Bertsoak kantatzen ditu: "Ai toki oneko alaba, etxeko andre zabala, bidean enteratu naiz limosneroa zerala". Eta beste bat: "Ate honek badu zuloa, hor dago sutondon katua, gero falta izan du xagua, ai etxeko andre, zure limosnarekin bete nahi nuke zakua". Horren truke ardo trago bat eta limosna hartzen zuten. Horrekin parranda pixka bat egiten zuten gero. 5-6 gazte joaten ziren eskean. Gero

jende gehiago joaten hasi zen, dirua eskas baitzen. Baserri batetik 2 talde ere pasatzen ahal ziren. Lehen pasatzen zena limosna hobia zuen. Baserrietan eta herrian ibiltzen ziren. Herrian limosna gutxi ematen zuten. Bi egunetan egiten zen, lehengo usadio zaharrari jarraikiz. Iparraldean nola kantatzen zuten gogoratzen du Norbertok.

16. Arantzako inauteak

- **Erref:** ARN-020/026
- **Iraupena:** 0:07:17. **Hasi:** 00:37:14. **Bukatu:** 00:44:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Bi egun izaten ziren. Zortzikoa dantzatzen zuten gazteek eta zaharrek (zaharrenari zahar dantza deitzen zioten). Inauteetako azken egunean dantzatzen zuten zaharrek. Orain gazteek pasatzen dute ongi eta diru asko biltzen dute. Lehen arrautzak baino beste limosnarik ez zen. “Puska, puska” ohiukatzen zuten, eskean. Beran berriz “Xinger arrautze, xinger arrautze, bat ez bada beste”. Mutikoak joaten ziren binaka bilduak. “Mozor txikiak” esaten zieten. 15-16 urterartekoei esaten zieten hala. Gaztetan mozorro zuriak eta beltzak izaten ziren. Aurpegia tapatuta ibiltzen ziren eta ahalik eta zakarren jantzita. Haurrei segika ibiltzen ziren baina eliza atarian libre ziren haurrak. Beste batzuk koloreetako arropaz jantzen ziren eta kriskitinak eramaten zituzten. Mozor-zuriak zuriz jantzita ibiltzen ziren. Neskak inauterietan atera zirenekoa kontatzen du. Batzuei inpresioa eman zien. Mozorro zuriak dantzan ibiltzen ziren.

17. Gazteak bestak antolatzekeo elkartzen ziren

- **Erref:** ARN-020/028
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:45:43. **Bukatu:** 00:46:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Bai inauteak eta bai bestak antolatzekeo gaztean udaletxean elkartzen ziren. Udalak ere ematen zuen diru pixka bat antolakuntzarako.

18. Ezkontza eguneko ohiturak

- **Erref:** ARN-020/030
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:46:56. **Bukatu:** 00:48:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Norbait ezkontzen zenean dolareetako ardoa” banatzen zieten herrikoei. Toberak ere izaten ziren. Ezkongaiei abesten zizkieten. Norbertok pixka bat abesten du. Normalean banketea emaztegaiaren etxean izaten zen eta toberak ere han izaten ziren.

19. Soldadu garaiak

- **Erref:** ARN-020/032
- **Iraupena:** 0:06:12. **Hasi:** 00:48:52. **Bukatu:** 00:55:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Evaristo Mitxelena akordeonista bere kintoa izen zen. Burgosera eraman zituzten eta Evaristo akordeoia jotzen joan zen autobus gainean. Iruñetik ere saltoka ibili ziren. Burgosera joateko manta bat eta bi sardina lata eman zizkieten. Trenez joan ziren Burgosera. Gerra ondoan soldadu bizia oso txarra zen. Zorriak baino ez zituzten. Fusilamenduak egitera ere bidali zuten Norberto. Bizkaitar abertzale bat fusilatzea egokitu zitzaion. Tiroa gora egiten zuten baina Guardia Zibilak ondoan zituzten pistolarekin. Haiek tiro egin eta soldaduak koartelera sartzen zituzten. Guardiak oso zorrotzak izaten ziren eta diziplina handia izaten zen koartelean. Burgoetik Santanderrera bidali zituzten. Han hobe izan ziren. Gero Santillana del Mar-en.

20. Gerratik libratu zen

- **Erref:** ARN-020/034
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:55:49. **Bukatu:** 00:58:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Paperen esperoan zen. Frentera destinatu zuten, baina paperak behar zen garaian ez zirenez heldu, Elizondoko beste mutil bat joan zen bere ordeaz. Soldadu egon zen Burgosen, baina ez gerran. 2 anai izan zituen gerran. Koinatua ere bai, hura hil zuten. Lapurreta handiak izan ziren gerra garaian.

21. Anaiei arabera gerratik libratu

- **Erref:** ARN-020/035
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:58:27. **Bukatu:** 01:00:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Beste 2 anai zaharrago gerrara bazihoazen hirugarren anaia libre zen. Baina gurasoek esan behar izaten zuten. Beste bi anaiak lanean ari ziren eta Norberto destinatu zuten. Baina paperak garaian heldu ez zirenez, libratu zen. Izaten ziren ere bando ezberdinetan aritzen ziren senideak ere. Norbertoren 2 koinatu Frantzian egon ziren gordeta. Elkar ezin-ikusi handia izan zen Arantzán. Arantzako 4 lagun eraman zituzten San Cristóbalera preso.

22. Batallón de Trabajadores

- **Erref:** ARN-020/037
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:02:27. **Bukatu:** 01:03:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Basarri bertsolariak bertsoak jarri zituen “Batallón de trabajadores” direlakoetan aritzen zirenei, bera barne. “Oiartzun, Aritxulegi, San antón ta Lesaka, jarri gaituzte hirunaka eta beraka”. Bertako errepidea egiten izan baitziren. Lesakan karretera egiten aritzen zirenak ikusi zituen Norbertok lanean.

23. Koinatua batallón de trabajadores-en.

- **Erref:** ARN-021/001
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Bizi txarra izan zuen bere koinatuak han. Jateko gutxi, arropa gutxi, pikotza...Errepidea egiten izaten zituzten eta lan gogorra zen hura. Halako kanpai denda batzuetan egiten zuten lo.

24. Konboia gerra garaian

- **Erref:** ARN-021/003
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:01:16. **Bukatu:** 00:02:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Lesakatik Oiartzunera joaten ziren behor batekin konboian. Oiartzunera kargatuta joaten ziren. Irin zaku batzuk zeramatzatzen gainean eta tirokatuak izan ziren eta irinez zurituta bukatu zuten. Konboiarekin jatekoa eramaten zieten frentean zirenei.

25. Gerrako presoak

- **Erref:** ARN-021/004
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:02:56. **Bukatu:** 00:03:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Erreketeeek presoak hartzen zituzten. Eskuko hatzetik lotu eta soka batean eramaten zituzten 15 bat Oiartzundik Lesakara.

26. Manifestazioak egiten ziren herrian gerra garaian

- **Erref:** ARN-021/006
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:04:43. **Bukatu:** 00:06:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Manifestazioak egiten zituzten herri bat hartzen zen bakoitzean, eta abesten zuten: “Anima pues, anima pues, santa victoria nuestra es”. Norbertok ez

zuen horrelakoetan parte hartzen, bi anai baitzituen gerran. Herrian ez zen giro onik eta masoiak zirela esaten zieten.

27. Pelaioak

- **Erref:** ARN-021/007
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:06:37. **Bukatu:** 00:08:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Mutil koxkorrak jazten ziren Pelaioz. Militarrez jantzi eta desfileatzen ibiltzen ziren. Herrian 15-16 izanen ziren.

28. Arantzan ongi izateko erreketek izan behar zen. Gerran hildakoak

- **Erref:** ARN-021/009
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Txapela gorria jantzi behar izaten zen Arantzan ongi bizitzeko, Erreketeen alde egin, alegia. Norbertok 3 senide zituen gerran eta horregatik ezin zen Errketeen alde jarri. Arantzar asko izan ziren gerran. 14 hilak. Nicolás Etxeberría izan zen lehenbizikoa. Beste batzuen izenak ere gogoratzen ditu. Koinatuak esan zion gerra ondotik, oraindik ere hasteko zegoela gerra, orduan heldu baitziren ezinikusi handienak. Gerran hil edo zauritutakoen familiei pentsio zerbait ematen zieten.

29. Burgosen 8 euskaldun soldadu

- **Erref:** ARN-021/011
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:13:01. **Bukatu:** 00:15:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Burgosen 8 lagun euskaldun zeuden eta euskeraz egiten zuten. Tenientea joan zitzaien espainolez ez ote zekiten galdezka. Ezetz. Soldaduetako batek tenienteari galdetu zion euskeraz ia berak ba ote zekien eta arresto bikoitza jarri zion. Ilea moztu zieten eta 8 eguneko zigorra izan zuten, azulejoak garbitzen.

30. Erori zen hegazkin alemaniarra

- **Erref:** ARN-021/013
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:16:19. **Bukatu:** 00:18:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Eguberri egunez, meza garaian, hegazkin bat ikusi zuten bueltaka eta mendia jo zuen. 10 lagun hil ziren. Alemaniarrak ziren eta ziotenez, Hendaian izan zuten parranda pixka bat eta deskuidatu ziren ondotik. Gero behiekin eraman zuten hegazkina arrastaka Arantzara. Gorpuak altxatzera alemanak etorri ziren Arantzara.

31. Herriko kartzela eta ostatua. Ezkontza ostatuan

- **Erref:** ARN-021/014
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:18:59. **Bukatu:** 00:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Ostatua Herriko Etxeko bigarren pisuan egoten zen. Kartzela azpi-azpian. Ostatu ederra zen eta Norbertok han egin zuen ezkontzako bazkaria, udalari baimena eskatuta. Haiek prestatu zuten jatekoa: txekorra. Edaria Lesakatik ekarri zuten: Koñaka, anisa, ardoa... Arraina falta izan zitzaien egun hartan. Jateko: Menestra eta txekorra. Koroa eta dantzariak izan zituzten ezkontzan.

32. Amerikanoak eta bestak

- **Erref:** ARN-021/016
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:23:29. **Bukatu:** 00:23:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Ameriketan zegoen inor herrira bueltatu eta egun bat gehiago besta ordaintzen zuen.

33. Bestetako bazkaria

- **Erref:** ARN-021/018
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:24:37. **Bukatu:** 00:25:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Oiloa hil, egosi, salda egin, eta oiloa menestra egiteko probesten zen. Gisatua gero.

34. Mendi mutilen besta errege bezperan

- **Erref:** ARN-021/019
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:25:13. **Bukatu:** 00:26:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Errege bezperan mendian aritzen ziren mutilek besta egiten zuten herrian. Noiz hasi ziren ez du ongi gogoratzen. Bazkaria egiten hasi ziren. Aitzaki horrekin jende aunitz biltzen zen.

35. Kisua

- **Erref:** ARN-021/021
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:28:42. **Bukatu:** 00:31:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Kislari asko izaten zen herrian. Etxe bakoitzak zuen bere kisulabea kasik. Lan asko eskatzen zuen kisua egiteak. Ia ez da kusi gehiagorik egiten. Egurra erosten zuten eta puskatu. Kisua ona zen ilarra eta patatarendako, mamorroak hiltzeko. Kisua labean nola erretzen zuten azaltzen du. Kaikuak garbitzeko erabiltzen zen kisua besteak beste.

36. Kaikuak eta oporrak

- **Erref:** ARN-021/023
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:31:17. **Bukatu:** 00:32:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Kaikua esnea ibiltzeko izaten zen eta oporrak esnea bertatik edateko. Oporrak markatuak izaten ziren norberarendako.

37. Errautsak zeinatu gauean. Su berria

- **Erref:** ARN-021/025
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:32:44. **Bukatu:** 00:34:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Gauean sua itzaltzean, errautsak zeinatu egiten zituzten. Errezu bat ere egiten omen zuten baina Norbertok ez du gogoan. Brasak errautsarekin tapatzen ziren eta hurrengo egunean oraindik ere gorri zeuden su berria pizteko. Sua urtero berritzen zuten. Elizatik ekartzen zen su berria. Su zaharra etxetik ateratzen zen eta su bedeinkatua sartu.

38. Azeriak ehizatzen ziren

- **Erref:** ARN-021/027
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:36:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Azeriek oiloak jaten zituzten, beraz, jendeak azeriak ehizatzen zituen.

Alkatearengana eraman eta belarrian koxka bat egiten zion. Gero herritik paseatzen zen azeria eta eskean ibiltzen ziren.

39. Asteko mandatuak: ardoa, txokolatea, olio...

- **Erref:** ARN-021/028
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:36:19. **Bukatu:** 00:37:55

Gaia(k):

Laburpena:

Amak ogia, botila bat ardo, txokolatea eta litro bat olio ekartzen zuen etxera. Olio goilararekin zerbitzen zen, ez gastatzeko. Patatak lehenbizi egosten zituzten eta ondotik frijitu, oliorik ez txupatzeko. Gerra ondotik ez zen olio gehiago.

40. Kontrabandoa: pasadizo bat

- **Erref:** ARN-021/030
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:38:07. **Bukatu:** 00:39:46

Gaia(k):

Laburpena:

Mandoekin pasatzen ziren Frantziatik Espainiara. Horietako batean txistuka ari ziren kontrabando lagunak artean eta altoa eman zieten Guardia Zibilek. Korrika hasi ziren eta Guardiak tiroka. Baserri batean ezkutatu ziren. Han gaua pasa eta goiz aldera mugitu ziren. Itzuli handiago egin behar izan zuten hurrengo egunean.

41. Kontrabandoa: biderik luzeena eta ordainsaria

- **Erref:** ARN-021/032
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:42:33. **Bukatu:** 00:45:12

Gaia(k):

Laburpena:

Arantzatik ilunabarrean atera eta Erreterira goizeko 9etarako edo heltzen ziren. Gosaria ematen zieten. Lo pixka bat egin eta etxera. 25 duro pagatzen zen baje hura. Baziren 16 eta 17 duroko bidaiak ere. Batzuetan bueltako bidean lo hartzen zuten. Lanean ibiltzen ziren eta gero gauez kontrabandoan. Gero azienda hasi zen dirua ematen.

42. Peoi lana

- **Erref:** ARN-021/034
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:45:31. **Bukatu:** 00:46:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Peoi ibiltzeagatik 2 pezeta ordaintzen zuten egun guztiko lana. San Juango zubia egiten ibili zirenean, egun guztia lanean pasa 2 opil eta sardina batzuen truke eta ofizialeari 2 pezeta ordaintzen zizkioten. Jendeak diru pixka bat behar izaten zuen bizitzeko.

43. Apaiza eta induljentziak

- **Erref:** ARN-021/036
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:50:21. **Bukatu:** 00:51:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Garizuman bijiliarik egiten ez zuenak bula ordaintzen ahal zuen. Bula ordaindu eta bijilia egiten zuenak induljentzia izaten zuen. Hamarrenak ere ordaindu behar izaten ziren.

44. Herrien fama

- **Erref:** ARN-021/037
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:51:44. **Bukatu:** 00:53:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Aranztarrak harrikalariak, Igantziarrak txuloak, Goizuetarrak zapoak, Lesakarrak orgullosoak (Madrid txikito esaten zioten Lesakari). Etxalar, Beratar eta Sunbildarrei buruzko esaerarik ez daki.

45. Haurrei esaten zitzaizkien kontuak

- **Erref:** ARN-021/039
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:54:51. **Bukatu:** 00:57:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Haur jaio berriak errekan harrapatzen zituztela esaten zuten zenbait zaharrek. Sorgin kontuak ere kontatzen zituzten. Bidera ateratzen ziren. Lamiak ere izaten ziren.

46. Lapurrak

- **Erref:** ARN-021/041
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:57:55. **Bukatu:** 00:59:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Aitak mendian lan egiten zuen. Afaria egin zuten gau batean gizon bat atera zitzaion bidera eta dirua emateko. Aitak ezetz eta korrika heldu behar izan zuen etxera. Atea itxi eta ez zegoen besterik. Guardia Zibilek pistola eta eskopeta bat eman zioten Norbertoren aitari, badaezpada.

47. Eltzetzuak

- **Erref:** ARN-021/043
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 01:00:30. **Bukatu:** 01:01:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Lehen Eltzetzu aunitz zegoen (ez zen Guardia Zibilaren berdina). Mendiak kontrolatzen zituzten.

48. Ijitoak

- **Erref:** ARN-021/044
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:01:09. **Bukatu:** 01:02:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Ijito asko egoten zen eta oiloak ebasten zituzten, eskean joaten zirenean. Alfer fama zuten baina biziak ziren.

49. San Juan bezperan sua

- **Erref:** ARN-021/045
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:02:01. **Bukatu:** 01:03:19

Gaia(k):

Laburpena:

Iratzea eta egur pixka bat erretzen zen eta gainean salto eguten zuten. Sarna fuera oihukatzen zuten. San Pedro eta Korpus egunean ez zuten lanik egiten. Lanak bezperatik egin behar izaten zituzten. Zortziurrenean goizetik lana eta arratsaldean besta. Akordeoia izaten zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com